

## Kanalak

Hasteko, geure salmentarako kanal propioa izango dugu, hau da, denda propioa edukiko dugu. Hau, bi motatan bereiziko dugu; alde batetik, denda fisikoa izango dugu, kontsumitzaileek betaurrekoak ikusteko eta ukitzeko aukera izateko. Gainera, lonja batean hasiko ginateke, baina geroago, diru gehiago izatean, denda bat alokatuko genuke zein kokapena estrategikoa izango duen, hau da, leku garatuetan edota herri handien erdialdean, horrela, ahal den jende kopuru gehienari iristeko. Beste aldetik, online-denda sortuko dugu atzerrikoek edota dendara joan ezin direnak gure produktua nahi izatekotan erosteko aukera izateko.

Komunikazio kanalarri buruz, hurrengo esan dezakegu: Instagram-eko kontu bat irekiko dugu eta honetan, gure betaurrekoei buruzko informazioa emango dugu, honen argazkiak zintzilikatuko ditugu, gure kontsumitzaileei behar duten informazio guztia emateko, eta haien galderak edota zalantzak ebazteko.

Gainera, honekin lotutako merkatu estrategia bat ere egingo dugu. Pertsona famatuei gure betaurreko pare bat oparituko dizkiegu eta haiek, trukean, haien sare sozialetan gure produktuari buruz hitz egingo dute, guk, publizitatea lortuz.

Hortaz aparte, bestelako publizitate mota erabiliko genuke, adibidez, telebistan agertuko den iragarki bat sortuko genuke, erosleekin komunikatzeko kanal perfektua delako telebista, adin guztietako pertsonak ikusten dutelako, eta ondorioz, gure produktuan interesatzeko probabilitateak handiagoak direlako. Iragarkiari dagokionez, 30 segundukoa izango lirakeke, gaueko bederatzietan jarriko genuke, teleberria baino lehen, ordu horretan gehienek etxean egoten direlako eta teleberria ikusteko prestatzen direlako. Beste aldetik, "ETB2" kanalean transmitituko genuke, nahiko famatua delako, eta 2200€ ordainduko genuke publizitateagatik, eta aste osoan zehar transmitituko zen.

Publizitate digitala alde batera utziz, idatzizkoari buruz hitz egingo dugu. Honetan, hainbat kartel edota liburuzka egingo dugu. Kartelen kasuan, oso koloretsua eta erakargarri diren kartelak kaletik itsatsiko genituzke, herritik oinez dabiltzan

pertsonen arreta erakartzeko. Baina hau guztia egin baino lehen, merkataritza-guneetan ipiniko gara eta hartako pertsoneri geure betaurrekoei buruzko galderak egingo genizkieke (zer gustatuko litzaioke ateratzea, koloreei buruz galderak, prezioarekin konforme badaude...).